

2025
**MAIATZAREN
LEHENA**

11:30
BILBO
JESUSEN BIHOTZA

GUTXIENeko
**SOLDATA
HEMEN
ERABAKI**



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Con ocasión del Primero de Mayo, ELA expresa su firme oposición a la **estrategia de militarización** impulsada por la Comisión Europea y la OTAN, porque es una amenaza para la paz, la democracia y los derechos sociales. En esta fase imperialista las principales potencias defienden los intereses de sus grandes empresas, utilizando la amenaza de guerra para controlar recursos económicos y comerciales. **La guerra es una consecuencia del sistema capitalista**, al que hay que oponerse necesariamente para defender la paz y el respeto a los pueblos.

Uno de los primeros efectos negativos de que la UE destine 800.000 millones a la industria militar será el recorte en las políticas sociales, ya que pretenden derivar fondos públicos a la industria armamentística. ELA muestra su preocupación porque esta estrategia es impulsada por determinadas empresas y por parte del poder económico en Euskal Herria con el visto bueno de gobiernos y partidos políticos.

Por ello, ELA reivindica este Primero de Mayo los valores de igualdad, justicia social, paz y antimilitarismo, solidarizándose con el pueblo palestino y denunciando el genocidio que comete el Estado de Israel.

A este auge del militarismo se le suma el crecimiento de la **ultraderecha** y el peligro de que, también en Euskal Herria, se extiendan en ciertos sectores de la sociedad **discursos racistas, machistas o LGTBIfóbicos**.

Frente a ello, ELA reivindica la lucha social y sindical, el compromiso militante para transformar colectivamente la sociedad. Para lograr que la **vivienda** deje de ser un negocio y pase a ser un derecho; para lograr un **sistema fiscal** que reparta la riqueza en vez de favorecer los intereses de los que más tienen; y para garantizar una **educación pública de calidad**, como exigen sus trabajadores y trabajadoras en huelga.

En ese compromiso militante, la lucha contra la **precariedad** continúa estando en el corazón de la estrategia de ELA, y por ello, junto a otros sindicatos, ha puesto en marcha una dinámica para lograr un **Salario Mínimo Interprofesional (SMI)** para nuestro país.

ELA ha fijado en 1.795 euros el SMI para repartir la riqueza de una forma más equitativa, pero es evidente que miles de trabajadores y trabajadoras están lejos de percibir un salario que se acerque a esa cantidad, especialmente en sectores feminizados y racializados, que en muchos casos son esenciales, tal y como se demostró durante la pandemia.

Precisamente porque la prioridad es mejorar el salario de las personas con peores condiciones laborales, se ha planteado a las patronales Confebask y CEN una propuesta de mínimos para establecer, de entrada, un SMI de 1.500 euros en 14 pagas. La respuesta de Confebask ha sido negarse a negociar. En Navarra, la CEN, junto a UGT y CCOO, ha decidido no presentarse a la negociación.

ELA no va a aceptar que la patronal vete la posibilidad de lograr un SMI propio. Por ello, junto a otros sindicatos, ha puesto en marcha una **ILP** para que los Parlamentos de Gasteiz e Iruña soliciten que el SMI se decida aquí.


Así, este Primero de Mayo, junto a la reivindicación de paz y antimilitarismo, hay que emprender una tarea concreta. ELA cree, de verdad, que estamos ante una oportunidad. Por eso es importante la implicación colectiva y personal en la recogida de firmas para tramitar la ILP y presionar así en favor de un SMI propio: sería un importante logro para la clase trabajadora en Euskal Herria.

Gora munduko langileria! Gora Maiatzaren Lehena!

2025 MAIATZAREN LEHENA

11:30
BILBO
JESUSEN BIHOTZA

GUTXIENeko SOLDATA HEMEN ERABAKI



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Aurtengo Maiatzaren Lehena dela eta ELAk Europar Batzordearen eta NATOren **militarizazio estrategiaren** kontrako jarrera irmoa adierazi nahi du, hark bakea, demokrazia eta eskubide sozialak arriskuan jartzen baititu. Aro inperialista honetan potentzia nagusiek beren enpresa handien interesen alde jokatzeko dute, eta gerraren mehatxuaz baliatzen dira baliabide ekonomikoak eta merkatuak kontrolpean izateko. Gerra da sistema **kapitalistaren ondorio** bat, eta bakearen eta herrirentzako errespetuaren alde ezinbestekoa da horri aurre egitea.

Europar Batasunak 800.000 milioi industria militarreko bideratzeak eragin larriak ditu, eta lehena gizarte-politiken murrizketa izango da, funts publikoak armagintzari eman nahi baitizkio. ELA kezkatuta dago estrategia hau Euskal Herrian enpresa jakin batzuk eta botere ekonomikoa bultzatzen ari direlako, gobernuen eta alderdi politikoen oniritziarekin.

Horregatik, Maiatzaren Lehen honetan ELAk berdintasun, justizia sozial, bake eta antimilitarismoaren balioak aldarrikatzen ditu; elkartasuna adierazi nahi dio Palestinako herriari, baita Israelgo Estatua egiten ari den genozidioa salatuz ere.

Militarismoa hedatzearekin batera dator **eskuin muturraren** gorakada, eta Euskal Herrian ere gizarteko sektore batzuetan **diskurtso arrazista, matxista edo LGBTIfobikoak** zabaltzeko arriskua.

Horren aurka ELAk borroka sozial eta sindikalaren alde egingo du, konpromiso militantearen alde, gizartearen eraldaketa kolektiboa lortzeko. **Etxebizitza** ez dadin gehiago negozio izan, eskubide baidik; aberastasuna banatuko duen **zerga-sistema** lortzeko, ez gehien dutenen interesen arabera; **kalitatezko hezkuntza publikoa** bermatzeko (horixe eskatzen dute sektoreko langileek egiten ari diren grebekin).

Aipatutako konpromiso militante horren baitan **prekaritatearen** kontrako borroka dugu ELAren strategiaren ardatza; horregatik, beste sindikatu batzuekin batera dinamika bati ekin diogu gure herrirako **Lanbidearteko Gutxieneko Soldata** (LGS) ezartzeko.

ELAk aberastasuna berdintasun handiagoz bana dadin 1.795 euroko LGS bat eskatzen du; haatik, begibistakoa da milaka langileren soldata zenbateko horretatik urrun dagoela, batik bat sektore feminizatu eta arrazializatuetan, nahiz eta sarri oinarritzeko diren, pandemian agerian geratu zen moduan.

Hain zuzen lehentasuna delako lan-baldintza okerrenak dituen jendearen ordainsaria hobetzea, Confebask eta CEN patronalei gutxieneko proposamen bat jarri diegu mahai gainean; hasteko 1.500 euroko LGS bat izango litzateke 14 pagatan. Alabaina, Confebaskek ukatu egin digu negoziatzeko aukera. Nafarroan, CEN, UGT eta CCOO gai honi buruz deitutako bilerara agertu ere ez dira egin.

ELAk ez du onartuko patronalak hemengo LGS bat izateko aukera galarazterik. Horregatik, beste sindikatu batzuekin batera, herri-ekimen legeile (HEL) bat jarri du martxan Iruñeko eta Gasteizko parlamentuek eska dezaten LGS hemen erabakitzea.

Horrenbestez, Maiatzaren Lehenean, bakea eta antimilitarismoa aldarrikatzeaz gain, egin behar konkritu bati heldu behar diogu. ELAk uste du, benetan, aukera ona dugula orain. Horregatik da garrantzitsua **HEL** gauzatzearren sinadurak biltzeko inplikazioa, banakoena eta kolektiboa, hemen erabakitako LGS baten alde indar egiteko: Euskal Herriko langileriarentzat lorpen handia litzateke.

Gora munduko langileria! Gora Maiatzaren Lehena!